

Erregimena kalean nahiz hautesontzietan garaitzea, burujabetzan eta aldaketa sozialean sakontzeko gakoa

LAB sindikatuak, herritar eta eragile ugari bezala, kezka dakusa azken asteotan Nafarroan sortutako testuinguru nahasia. Beharrezkoa da energia, ilusio eta determinazioa berreskuratzea, aurrean dugun erronkari eusteko: Erregimena garaitzea, hala kalean nola hautesontzietan, burujabetza eta aldaketa sozialean aurrera egiteko.

Nafarroan aldaketa instituzionala eman zenetik, LAB sindikatuak borrokan jarraitzeko beharra aldarrikatu du behin eta berriz, duela lau urteko aldaketa instituzionala sakoneko aldaketa sozial eta politikoa gauzatu zedin. Gure kontrabotere sindikal positibotik, dialektika erakitzaile bat garatu dugu, norabide bikoitzean aurrera egiteko asmoz: langileriaren lan eta bizi baldintzen hobekuntza; eta Nafarroaren erabateko demokratizazioa, nafar herritarrok dagozkigun gai guztien inguruan erabaki ahal izan dezagun. Ildo honetan:

- Hamarkadetan zehar sektore sozial zabalei inposatutako apartheidarekin amaitzeko xedez Gobernuak eta Parlamentuak hartutako neurri demokratizatzaileak babestu ditugu, eta zenbait praktika baztertzailerren jarraipena salatu dugu, hala nola VW-eko kontratazio eredu diskriminatzailea.
- CEN, UGT eta CCOOen txiringitorekin amaitzeko, Nafar Lan-sareko erreforman parte hartu dugu; eta Lan Osasuneko Kontseiluan gure parte hartzea eten dugu, aipatutako eragileek mutuen soberakinak eskuratzen jarraitzea ahalbidetu delako.
- Politika sozialean egindako ahaleginak aitortu eta bermatutako errentaren edota etxebizitza legearen hainbat alderdi kritikatu ditugu.
- Langileriaren aldeko neurriak har zitezten mobilizatu gara eta lortu egin dugu, besteak beste, klausula sozialak barnebiltzen dituen Kontratu Publikoen Legean, murrizketak bertan behera uzten dituen Hezkuntza Itunean edota Administrazioako mileuristak ezabatzeke sinatutako akordioan.
- Era berean, administrazioaren sakoneko erreforma egiteko ekimen falta deitoratu dugu, baita motz geratu den erreforma fiskala edota CENen neurria egindako politika ekonomikoa ere. Eta Huerta de Peraltako grebaren harira, Nafarroako landa eremuan ematen den prekaritatearekin amaitzeko deia egin diegu instituzioei.

Ikuspegi honetatik, eta aldaketa prozesuak bizi duen nolabaiteko geldialdiaren aurrean, honako hau adierazi nahi dugu:

1. Eraldaketa sakonago baten alde borrokatzen badugu ere, azken lau urteotan egindako aurrerapen demokratizatzaileak eta sozialak aintzat hartzen ditugu. Aurrerapen hauek, nafar instituzio nagusietatik Erregimenaren indarrak botatzea ahalbidetu duen urteetako mobilizazio sozialari esker izan dira posible. Hauteskundeen ondoko indar korrelazioan Erregimenaren aldeko aldaketarik balego,

edota aliantzei dagokionez PSNren mesedetan mugimendurik balego, aldaketa prozesuak blokeatu eta atzera egingo luke.

2. Argi eta garbi geratu denez, Nafarroako aldaketa instituzionala baldintza beharrezkoa baina ez nahikoa da aldaketa politiko eta sozial integral baterako. Eragile sozial eta sindikalen borroka ez-inbestekoa da, ez soilik instituzioak interpelatzeko, baita aipatutako aldaketa politiko eta sozial horren norabidean aurrera egiteko baldintzak sortzeko ere, hala orokorrean nola eremu eremu. Lantokietan nahiz kalean langile jendea antolatu eta mobilizatzea da gure egin-beharra, prekaritateari aurre egiteko, lana nahiz aberastasuna bantatzeko, pentsioak duintzeko edota soldata arrakalarekin amaitzeko neurriak bilduko dituen agenda sozial bat sustatuz. Uste dugu eragile sozial eta sindikalok gehiago egin behar dugula ildo honetan.

3. Legegintzaldi honetan zehar, aldaketa politiko eta sozialerako bide egiturazko oztopo nabarmendu ditugu behin baino gehiagotan: lehenik eta behin, bere politika publikoak diseinatzeko orduan Espainiako estatuarekiko Nafarroak duen menpekotasuna (Hitzarmenaren birnegoziarioaren ondotik Nafarroako Parlamentuak onartutako inbertsioei PSOEn Gobernuak ezarritako betoak argi erakusten duen bezala); eta bigarrenik, Nafarroako Patronalak mantentzen duen eragiteko gaitasuna, bereziki Geroa Bairen politika fiskal eta ekonomikoa dagokionez. Hurrengo legegintzaldian bi ardatz horiei heldu beharko zaizkio: burujabetzaren aldeko borroka batetik eta politika fiskal eta ekonomikoen aldeko aldaketa bestetik.

4. Aipatutako egiturazko arazoei beste zenbait gehitu zaizkie azken asteotan, hala nola alderdien arteko lehia edota aldarrikapen sozialen kontrako errepresioa, Peraltan nahiz Iruñean. Ildo honetan, alderdien logiken ginetik aldaketa prozesuari eustea eskatzen dugu eta Nafarroako Gobernuari exijitzen diogu Maravillas Gaztetxearen kontrako bide errepresiboa bertan behera utz dezan behingoz. Azken afera honi dagokionez, Iruñeko Udalak elkarriketaren aldeko apustua egin eta alternatiba zehatzak eskaini izana begi onez ikusten dugu.

5. Borrokatzen eta, dagoena dagoela, instituzioak interpelatzen jarraitzeko gure borondatea berresten dugu, langileriaren aldeko agenda soziala ezarri dadin. Alabaina, ez dugu inolaz ere bat egiten aldaketa instituzionalari garrantzia kendu, "denak berdina dira" teoria zabaldu edota datozen hauteskundeetan garrantzia gutxiesten duten mezuekin. Hauteskundeetan langile klasearen desmobilizazio txikiena emango balitz, Erregimena, Patronala eta Nafarroako elite ekonomikoa lirakeke garaile. Berritoki diogu, esaldiaren hurrenkera aldatuta: hauteskundeetan Erregimena garaitzea ez da baldintza nahikoa, baina bai beharrezkoa aldaketa politiko eta sozialean aurrera egiteko.

Iruñean, 2018ko otsailaren 11



Ganar al Régimen en la calle y en las urnas, clave para avanzar en la soberanía y el cambio social

El sindicato LAB, al igual que muchas personas y organismos, está preocupado por el confuso contexto generado en Navarra durante las últimas semanas. Consideramos necesario que los sectores populares recuperemos la energía, ilusión y determinación para abordar el reto que tenemos enfrente: ganar al Régimen tanto en la calle como en las urnas, para avanzar en la soberanía y el cambio social.

Desde que se produjo el cambio institucional en Navarra, el sindicato LAB ha manifestado la necesidad de seguir luchando para lograr que el cambio institucional producido hace cuatro años se plasmara en un cambio político y social de calado. Desde nuestra posición de contrapoder sindical, hemos mantenido una dialéctica constructiva con el objetivo de avanzar en una doble dirección: mejora de las condiciones de vida y de trabajo de la mayoría trabajadora; y democratización plena de Nafarroa para que la ciudadanía navarra pueda decidir sobre todas las materias que le conciernen. En este sentido:

- Hemos apoyado las medidas democratizadoras impulsadas por Gobierno y Parlamento para terminar con el apartheid que durante décadas se impuso a amplios sectores sociales, a la par que hemos denunciado la pervivencia de prácticas discriminatorias como la contratación "a dedo" en VW.
- Hemos participado en la reforma del Servicio Navarro de Empleo para terminar con el chiringuito de CEN, UGT y CCOO, y hemos suspendido nuestra participación en el Consejo de Salud Laboral por validar que dichos agentes se apropien de los excedentes de las mutuas.
- Hemos reconocido el esfuerzo realizado en políticas sociales y hemos criticado determinados aspectos de la ley de renta garantizada o vivienda.
- Nos hemos movilizado para lograr medidas favorables a la clase trabajadora y lo hemos conseguido con una Ley de Contratos Públicos que introduce las cláusulas sociales, con un Pacto Educativo que revierte los recortes, con la eliminación de los y las mileuristas de la Administración.
- Igualmente, hemos criticado la falta de iniciativa para una reforma integral de la administración, así como la insuficiente reforma fiscal o el mantenimiento de una política económica a la medida de la CEN. Y al hilo de la lucha en Huerta de Peralta, hemos interpelado a las instituciones para poner freno a la precariedad en el campo navarro.

Desde esta perspectiva, y ante esta especie de impasse en el proceso de cambio, manifestamos lo siguiente:

1. Si bien aspiramos y luchamos por una transformación más profunda, ponemos igualmente en valor los avances democratizadores y sociales producidos durante los últimos cuatro años. Estos avances han sido posible gracias a largos años de movilización social, que possibilitaron finalmente el desalojo de las fuerzas del Régimen de las princi-

pales instituciones navarras. Un cambio en la correlación de fuerzas a favor del Régimen en el terreno electoral, o un cambio en las alianzas en favor del PSN, supondría el bloqueo y reversión del proceso de cambio.

2. En nuestra opinión ha quedado patente que el cambio institucional en Navarra es una condición necesaria, aunque no suficiente, para un cambio político y social integral. Es imprescindible que las fuerzas sindicales y sociales nos movilemos, no solo interpelando a las instituciones, sino también generando condiciones para alcanzar dicho cambio político y social, tanto a nivel global como sectorial. Nuestra tarea es organizar y movilizar a la gente trabajadora en los centros de trabajo y en la calle en base a una agenda reivindicativa, social, con medidas contra la precariedad, por el reparto del trabajo y la riqueza, por unas pensiones dignas o el fin de la brecha salarial. Creemos que los agentes sociales y sindicales debemos hacer más en este sentido.

3. Durante esta legislatura hemos señalado reiteradamente dos obstáculos estructurales para el desarrollo del cambio político y social: en primer lugar, la dependencia de Navarra respecto al Estado español a la hora de diseñar e implementar las políticas públicas (ejemplificada en el veto del Gobierno del PSOE al plan de inversiones aprobado por el Parlamento tras la renegociación del Convenio); y en segundo lugar, la influencia que sigue teniendo la Patronal navarra, especialmente respecto a la política fiscal y económica de Geroa Bai. En la siguiente legislatura deben abordarse ambos ejes: lucha por la soberanía y giro a la izquierda en política fiscal y económica.

4. A los problemas estructurales mencionados se le han sumado durante las últimas semanas otros como la lucha partidista o la utilización de la Policía para reprimir reivindicaciones sociales, tanto en Peralta como en Iruñea. En este sentido, llamamos a preservar el proceso de cambio por encima de las lógicas partidistas y exigimos firmemente al Gobierno de Navarra el abandono de la vía represiva contra el Gaztetxe Maravillas. Respecto a este último asunto, valoramos positivamente la apuesta del Ayuntamiento de Pamplona por el diálogo y su disposición a ofrecer alternativas concretas.

5. Reiteramos nuestra voluntad de seguir luchando e interpelando a las instituciones, independientemente de su color, para que implementen una agenda en beneficio de la clase trabajadora. Ahora bien, no compartimos en absoluto aquellos mensajes que niegan la importancia del cambio institucional, que promulgan la teoría del "todos son iguales" o que relativizan la importancia del pulso electoral en ciernes. La más mínima desmovilización electoral de la clase trabajadora beneficiaría, en nuestra opinión, principalmente al Régimen, a la Patronal y a las élites económicas de Navarra. Repetimos, invirtiendo el orden de la frase anteriormente enunciada: ganar al Régimen en las elecciones es una condición no suficiente, pero sí necesaria para avanzar en el cambio político y social.

En Iruñea, a 11 de febrero del 2018

